

KUVU. Belaunaldien arteko bizikidetza



Gizarte eta osasun
zerbitzuak



Errespetua eta
inklusioa



Etxebizitza

KUVU. Belaunaldien arteko bizikidetza

Kuvuk erronka nagusi bat du aurrean: nahi gabeko bakardadea prebenitzea; hau da, adinean gora egin ahala harreman sozialak galtzen joateari aurrea hartzea. Nahi gabeko bakardadeaz ari gara; izan ere, bakardadeak, berez, ez du zertan txarra izan, pertsonaren ikuspuntuaren edo bilatzen ari den horren arabera da. Nahi gabeko bakardade egoeran dagoen pertsonak kalitatezko harreman sozialen gabezia du, gizarte harreman gutxi duelako edo harreman garrantzitsurik ez duelako. Nahi gabeko bakardade hori kroniko bihurtzen bada eragina izan dezake pertsonaren osasun fisikoan eta mentalean.

Nahi gabeko bakardadearen arrazoi nagusiak hiru dira, eta arrisku faktore esaten diegu. Kuvuk hiru horietatik bitan eragiten du:

- Bakarrik bizitzea eta gizarte sarearen falta: bakarrik bizi izanda gizarte interakzioak gutxitu egiten dira, eta, horrez gain, inguruan ez badago lagun, senitarteko eta antzekoen sare zabalik, bakardade sentimendua areagotu egiten da. Bakardadea oso lotuta dago gizarte isolamenduarekin eta gizarte harremanak sortzeko ezintasunarekin. Gainera, logela bat alokairuan jartzeko orduan, adinekoek euren etxeko ateak irekitzeko beldurra izaten dute, eta hasieran nahiago izaten dute epe laburrerako egitea. Gaur egun, Europan, 65 urtetik gorako 31 milioi lagun bizi dira bakarrik.
- Diru sarrera falta: adinean gora egin ahala, diru sarrerak murriztu egiten dira erretiroaren, alarguntasunaren edo banantzearen ondorioz, eta horrek pobrezia eragiten du adinekoen artean, bizimodu duina izatea galarazten die. Europan, hain zuzen, adinekoen % 17,4 pobrezia arriskuan dago aipatutako arrazoiak medio. Diru sarreraren faltak % 7 handitzen du, batez beste, nahi gabeko bakardadea sarritan sentitzeko arriskua Europan. Normalean, bakarrik sentitzeko joera handiagoa dute autoestimu baxua duten pertsonen eta ezkorren direnak.

Bi belaunaldien arteko beste arazoetako bat «Belaunaldiarteko ezin ulertua» da. Pertsonak adinean gora doazen heinean, sarritan gutxitu egiten dira haien gizarte harremanak. Teknologiaren garapen azkarrak ere eragina du horretan, belaunaldien arteko tartea handitu egiten baita, elkar ez ezagutzeagatik eta elkarrekiko aurreiritzi eta estereotipoengatik.

- Zeharkako edo bigarren mailako arazoa: gazteentzako biziokien eskaintza ez da nahikoa, eta dagoena ez dator bat haien beharrek —ez ekonomikoekin, ez etxebizitzaren ezaugarrien ingurukoekin—. Etxebizitzaren egoerari erreparatuta, Europako hirien bi herenetako biztanlerik gehienek uste dute ez dela erraza etxebizitza egokia arazoizko prezioan aurkitzea euren hirian. Izan ere, hirietan, etxebizitzaren kostua familia baten errenta erabilgarriaren % 40koa da.

Hori guztia kontuan hartuta, Kuvun belaunaldien arteko elkarbizitzarako programa sortu genuen, online plataforma bat oinarri hartuta. Adinekoek zein gazteek profila sortzen dute plataforma horretan, alta emateko. Gero, txataren bidez, elkarrekin bizitzeko aukeratuko lituzketenekin harremanetan jar daitezke.

Programa horren bidez, adinekoen bakardadea murriztu nahi da, egoera hori prebenitu eta haien bizi kalitatea hobetu. Aldi berean, beharra duten gazteentzako kalitatezko logelen eskaintza handitzea da asmoa.

Pertsonak bilatzen dutenaren arabera, printzipio hauetan oinarritu gara:

- Hautatutako pertsonak. Kuvun parte hartuko duten etxebizitzak eta pertsonak hautatu egiten dira. Komunitatearen printzipioekiko konpromisoa erakutsi behar dute.
- Pertsona egokiak. Zure interesak, izaera eta eskakizunak kontuan hartuta, zuretzat egokia den pertsona aurkitzen lagunduko dizugu. Norberari buruzko informazioa inprimakian jarri ondoren, bateragarriak diren pertsonak azalduko dira, eta elkar ezagutzeko aukera izango dute, norekin biziko diren erabaki aurretik.
- Bizikidetzaren babesa. Bitartekaritza zerbitzua eskaintzen du Kuvuk, bizikidetzara bermatzeko. Gure kontratu bereziari esker, bizikidetzara babes dezakegu, alokairuaren ordainketaz haratago doazen arau batzuk finkatuta. Gainera, arazoren bat sortuz gero, bitartekaritza taldeak esku hartuko du, eta kontratua suntsitu ere egin dezake.
- Alokairuaren kudeaketa. Guk geuk kudeatzen dugu kontratuekin, alokairuaren ordainketekin eta abarrekin lotutako guztia. Pertsonak euren arteko bizikidetzara bakarrik ardura daitezzen nahi dugu; horregatik, geuk egiten ditugu lan administratiboak.

1. Erakunde sustatzaileak

Kuvu homesharing SL
Squareet labs SL

2. Erakunde mota

Pribatua

3. Xede taldea

Nahi gabeko bakardadea murriztuz eta egoera horri aurrea hartuz adinekoen bizi kalitatea hobetzea da Kuvuren misioa; horretarako sortu da. Hiru faktore nagusik eragiten dute nahi gabeko bakardadea: osasun egoera delikatuak, bakarrik bizitzeak eta baliabide ekonomiko nahikorik ez izateak.

Hori dela eta, bakarrik bizi diren adinekoak dira xede taldea; izan ere, profirik kalteberena dira, eta askotariko beharrak dituzte. Eta, ikusi dugunez, batez ere emakumeak dira Kuvura jotzen dutenak.

4. Lurralde eremua

Estatua

5. Egoera

Abian jarrita

6. Etiketak

Etxebizitza, Errespetua eta inklusioa, eta Gizarte eta osasun zerbitzuak

7. Helburuak

Helburu orokorrak:

- Erabiltzaile diren adinekoen bizi kalitatea hobetzea, nahi gabeko bakardadeari aurrea hartuta, eta haien diru sarrerak handitzea.
- Hirietan, gazteentzako kalitatezkoak diren eta arrazoizko prezioa duten bizitokien eskaintza handitzea.
- Erabiltzaileentzat eraldatzaileak izango diren esperientziak sortzea.

2020rako berariazko helburuak:

- Adinekoen eta gazteen arteko 100 bizikidetzaren esperientzia abian jartzea.
- Bizikidetzaren batez besteko iraupena 6 hilabetekoa izatea.
- Belaunaldiarteko 4 topaketa egitea.
- Adinekoen diru sarrerak 260 € handitzea, batez beste, logela bakoitzeko.
- Nahi gabeko bakardadearen adierazleak 2 puntu murriztea, gutxienez, elkarrekin bizi direnen % 85en kasuan.
- Kuvu programaren erabiltzaileek bizi esperientziari emandako balorazioa 8,3 puntukoa izatea, eta horri eustea.
- Bizikidetzaren esperientzian parte hartzen dutenen % 85en bizi kalitatearen adierazleak bi puntu handitzea, gutxienez.
- Gure auzokideen bizi kalitatea eta gizarteratzea hobetzeko proiektuak.

8. Metodologia

Adineko askok euren etxebizitza partekatu nahiko lukete, baina ez dute egiten, beldurra eta segurtasunik eza sentitzen dutelako; izan ere, ez dakite nori alokatuko dioten gela, konpromisoak zenbat iraungo duen eta zer gerta daitekeen bizikidetzaren onarazketa ez bada. Gainera, legearen aldetik egon daitezkeen zailtasunek eta alokairuaren kudeaketak ere kezka eragiten diete. Kuvutik haxe esaten diegu adinekoiei: «partekatu zure etxea segurtasunez, Kuvu arduratzen baita guztiaz». Gure adineko erabiltzaileek etxeko logela bat partekatzen dute gazte batekin —ikaslea edo langilea

izan daiteke— aldi baterako, modu seguruan eta berme osoarekin. Pertsona egokia hautatzen da, bizikidetza babesteko kontratu berezia izenpetzen da eta lasaitasuna bermatzen zaie etxea partekatzen duten denboran.

Beraz, adinekoak euren interesen arabera egokiak diren gazteekin jartzen dira harremanetan. Ondoren, elkar ezagutzen dute eta elkarrekin bizitza erabakitzen dute. Ondoren, gure akordioaren inprimakia bete eta hilabeteko probaldia hasten da. Hilabeteko probaldiaren ondoren, Kuvuko profesional batek jarraipena egiten du bizikidetzaren bilakaera aztertzeko. Bizikidetza egokia bada, elkarrekin bizitzen jarraituko dute; bestela, esku hartuko da edo bitartekaritza erabiliko da, kasuaren arabera. Jarraipena aldizka egiten da, bizikidetzak irauten duen bitartean.

Gure metodoaren arabera, adinekoaren eta gaztearen arteko bizikidetza estrategia bat da, adinekoak gero eta harreman pertsonal gehiago izan ditzan, poliki-poliki: lehenengo maizter gaztearekin, gero programan parte hartzen duten beste adineko eta gazte batzuekin eta, ondoren, beste pertsona batzuekin, komunitatean egiten dituen jardueren bidez. Kuvu programaren egitekoa ez da bukatzen gazteari bizitokia arazoizko prezioan eskaintzean; horren ostean, adinekoaren bizitza soziala aktibatu behar da.

Gure iritziz, pertsonen denbora librean eragina izan dezaketen kontuek ezin dute baldintzatu bizitokia edo errenta arazoizko prezioan eskuratu ahal izatea. Beraz, ezin da derrigorrezkoa izan beste batzuen aldeko lanik egitea. Horrenbestez, maizterrek errentamendu kontratu arruntetan jasotzen diren betebeharrak izango ditu, ez gehiago.

Nolanahi ere, Kuvutik lankidetzarako eremuen sorrera sustatzen dugu, bizikidetza hobetu dezaketelakoan. Ildo horretan, adinekoek ere, euren kabuz, rol aktiboa izan behar dute eta bizilagun gazteei zeregin batzuetan lagundu.

Azken finean, Kuvuk belaunaldiarteko berdintasunezko harremanak sortu nahi ditu, bi aldeak ahalduzko eta eremu partekatuak sustatzeko, betiere partaide bakoitzaren erabakiz.

9. Alderdi berritzaileak

Kuvuren sorrerako helburua adinekoengan eragina izatea da, eta, aldi berean, sektoreraren proposamen berritzailea ekartzea. Eta berritzailea da batez ere alderdi teknologikotik, baina baita erabiltzailearen ikuspegitik ere.

Kuvuk proposatzen duen konponbidea online plataforman batean oinarrituta dago. Bertara sartzeko modua kanal bakarrekoa da, hau da, eskuragarria da ezagutza teknologikoak dituzten adinekoentzat zein arlo hori ezagutzen ez dutenentzat. Hala, prozesu osoa online egin dezakete horretarako ezagutza dutenek, euren profilarren eta eskaintzen duten logelari buruzko informazioa eremuak betez. Ezagutza nahikorik ez dutenak, berriz, gauza bera egiten saia daitezke, edo Kuvuren telefonora dei dezakete zuzenean, laguntza jasotzeko. Profilarren informazioa telefonoz ere eman ahal izango dute, edo aurrez aurre, adinekoak berak eskatzen badu.

Gainera, plataformak erabiltzen duen teknologiak aukera ematen du pertsonak haien arteko bateragarritasunaren arabera elkartzeko. Pertsona bakoitzak, bere profilaren informazioa ematean, galde sorta bat betetzen du, eta horren bidez plataforman dauden gainerako pertsonetikiko bateragarritasunaren ehunekoak lortzen da. Beraz, pertsonak eurekin bateragarritasunik handiena dutenen profilak ikus ditzakete lehenengo, eta, ondoren, norekin bizi nahi luketen erabaki.

Oro har, prozesu osoa online burutzeko aukerari esker —telefonoz edo aurrez aurre ere egin daitekeen arren—, Kuvu konponbide eskalagarria da, eta erraz erreplika daiteke beste probintzia eta herrialdeetan ere.

10. Ebaluazioa eta emaitzak

Kuvun, aldizka eta etengabe ebaluatzen dugun adierazle taula bat dugu. Inpaktua neurtzeko eta kudeatzeko dugun sistemak Ship2B fundazioaren saria jaso du. Adierazleen taula horretan honako hau neurtzen dugu:

Epe laburrera

- Bizikidetzaren esperientzien kopurua.
- Bizikidetzaren iraupena (hilabete kopurua).
- Egin diren belaunaldiarteko topaketen kopurua.
- Adineko bakoitzeko lortu den hileko diru sarreraren hazkundera.
- Gazteentzako bizitoki eskaintzaren gorakada.
- Antolakundearen diru sarrera garbiak.
- Erabiltzaileen eskuratze gastuak.
- Pertsona batek erabiltzaile den aldia sortzen duen balio garbia.

Epe ertainera

- Nahi gabeko bakardadeari aurrea hartzea: «adineko pertsonaren jarduerak, harreman sozialek eta kide izatearen sentimenduak gora egiten dute» (*To End Loneliness* tresna eta Historias de vida).
- Esperientzia eraldatzaileak sortzea (inkestak eta bizitza istorioak).

Epe luzera

- Bizi kalitatea: adinekoen gizarteratzea hobetzen da (FUMAT eskala bidezko neurketa).
- Bizi kalitatea: adinekoen pertsonarteko harremanek gora egiten dute (FUMAT eskala bidezko neurketa).